

1 Irakurgaia .

LAGUNARI ESKUTITZA

*Pili Loinazburu López
Oiartzun*

Kaixo laguna! Zer moduz zaude? Aspaldi nenbilen idazteketan, baina, badakizu, egunak konturatu gabe joaten dira eta gaur arte ez naiz jarri paperaren aurrean. Zer moduz iritsi zinen etxera? Ez dakizu nolako penaz geratu ginen hemen denak zu joan zinenean. Ez ditugu berehala ahaztuko gurekin pasatu zenituen egunak. Kurtsoa aurrera doa, baina asko falta da oraindik hurrengo oportetarako. Esan genuen bezala, datorren udan zu ez bazara Londresa etortzen gugana, gu joango gara horra, zurekin egun batzuk igarotzera.

Amona ospitalean dugu, baina ez du gauza handirik, itxuraz. Bihar edo etxi etxera bidaltzekoak omen dira. Gainerakoak beti bezala gaude. Ane txikia askotan oroitzen da zutaz. Galdera bera egiten du beti: *'Fili noiz etoliko ... ?'*. Aurten haurtzaindegian hasi da eta han ingelesez ikasiko du. Etxean, badakizu, gurekin euskaraz eta amonarekin gaztelaniaz. Nahaste ederra dauka gaixoak!

Udan ezagutu genituen mutilek ere maiz galdetzen dute zugatik. Batez ere, Michael ile horiak. Oroitzen zara, ezta? Beharbada egunen batean han agertuko zaitzu bisitan. Datorren udan Espainiara joatekoa omen da, Mediterraneo aldera edo. Baina beharbada lehenbizi hortik pasatuko dela esan dit, Euskal Herria ezagutzeko gogo handia duela. Ez dakit zuri bisitatxo bat egiteko aitzakia bila ez ote dabilen. Izan ere, ikustekoa da nolako aurpegia jartzen duen zutaz hitz egiten duenean. Ez da harritzekoa, hain atsegina izan zinen berarekin...

Michaelen laguna, John, gaztelania ikasten hasi da nirekin. Ez du asko aurreratzen, baina nik nahiago dut horrela joatea, poliki-poliki. Pena izango litzateke klaseak berehala amaitzea..., ulertzen didazu, ezta?

Aitak eta amak ere goraintziak eman dizkirate zuretzat. Nahi baduzu, ongi etorria izango zarela berriro gure etxean datorren udan ere. Aita enpresa berri batean hasi da; esportazio-inportazio lanekin zerikusia duela uste dut. Oso nekatua dabil, lan handia egiten baitu. Askok oroitzen da bere herriaz. Durango bezalakorik ez dagoela dio. Hala ere, udan horra joaten bagara, bera ezingo da gurekin etorri, hasi berria baita enpresa horretan.

Ama, beti bezala etxean. Badakizu, Ane haurtzaindegira eraman, ekarri... Hau eskolan hasten denean, berriro klaseak ematen hasiko dela dio. Ikusiko dugu.

Bueno, Pili, amaitu egin behar dut. Ea noiz idazten didazun zure berriak kontatuz. Goraintziak zure etxeko guztiei eta zuk hartu ezazu besarkada handi-handia.

Begoña Liroz

→ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

alde egin	dirudienez	azaldu	eskumuinak
gogoratu	harrigarria	aurrena	beste denak

→ b. Aukera ezazu esaldirik egokiena:

- | | | | |
|--|--|--|--|
| 1. Pili ... | <ul style="list-style-type: none"> (a) Londresen bizi da (b) Oartzunen bizi da (c) Durangon bizi da (d) Madrilen bizi da | 2. Begoña ... | <ul style="list-style-type: none"> (a) alaba zaharrena da (b) ama da (c) alaba gazteena da (d) izeba da |
| 3. Begoña ... | <ul style="list-style-type: none"> (a) ikaslea da (b) etxeko andrea (c) haur txikia (d) langilea | 4. Aitak Durangora joateko ... | <ul style="list-style-type: none"> (a) ez du gogorik (b) ez du dirurik (c) ez du oporrik (d) gaixorik dago |
| 5. Datorren urtean elkar ikusiko dute... | | <ul style="list-style-type: none"> (a) inon ez (b) Londresen (c) Euskal Herrian (d) bietako batean | |

→ c. Erantzun:

1. Egun asko egin behar al ditu amonak ospitalean?
2. Zer galdetzen du beti Ane txikiak?
3. Haurtzaindegian ingelesa ikasten badu, zenbat hizkuntza jakingo ditu Anek?
4. Zertara joan nahi du Michaellek Euskal Herrira, berak dioenez?
5. Hori bera uste al du Begoñak? Zertan igertzen dio?
6. Zer da harritzekoa ez dena?
7. Badirudi Begoñari mutil bat gustatzen zaiola. Zein? Zertan igertzen da?
8. Nongoa da Begoñaren aita?
9. Segurua al da datorren udan Begoña-eta Durangora joango direla?
10. Zenbat lagun bizi dira Begoñaren etxean?

→ d. Idatzi eskutitz bat lagun bati, gidoi hau jarraituz:

- zure etxeko berriren bat eman
- hurrengo udarako gonbidatu zure etxera
- udarako planak eta asmoak
- agurra



2. Aukera ezazu parentesi barruko formen artean egokiena (Elige la opción más adecuada):

- | | |
|---|--|
| 1. Atzo galdu ... kartera ez da inon agertu | (ziren; zenituen; zitzaidan; ninduen) |
| 2. Zergatik ez zenidan ekarri eskatu ... diskoa? | (zitzaion; nizun; ginen; gintuen) |
| 3. Ni orraztu ... neskak badaki jendea orrazten | (ninduen; zitzaigun; nuen; nizkion) |
| 4. Niretzat ekarri ... pastelak horrek jan ditu | (ninduzun; nuen; zen; zenituzten) |
| 5. Oihuka hasi ... neskak gazte-gazteak ziren | (zuen; ziren; zitzaigun; zintugun) |
| 6. Esan ... guztia egia hutsa zen | (genizuen; ziren; gintuen; genituen) |
| 7. Neskak ekarri ... notak bikainak ziren | (zuen; zen; zituen; ninduzun) |
| 8. Harrapatu ... autoa frenorik gabe zihoan | (ziren; zintuen; zitzaigun; ginen) |
| 9. Ondoan jarri ... neska guztiz atsegina zen | (gintuen; ziren; zuen; zitzaigun) |
| 10. Jaialdira joan ... gehienak pozik irten ginen | (ginen; zen; zituen; zintuzten) |
| 11. Hori esan ... gezurra esan zuen | (zuen; zuenak; zuena; zuenari) |
| 12. Garaiz itzuli ... ez zituen euriak harrapatu | (ziren; zituen; zintuzten; zirenak) |
| 13. Arropa kendu zioten igerian ... | (zebilanari; zihoana; zegoen; ninduen) |
| 14. Ez nator bat zure lagunak esan ... | (zuenari; zuenarekin; zituen; zen) |
| 15. Aurrena iritsi ... urrezko domina eman zioten | (zen; zenari; zirenei; zirenekin) |
| 16. Besapean ... nirea zen | (zeneramana; zeramatzana; zermanari; zeramatzanak) |
| 17. Etxean sartzen ikusi ... poliziari deitu zion | (ziguna; zenak; gintuenak; gintuena) |
| 18. Ez zien kasurik egiten haserre hurbiltzen ... | (zirenekin; zitzaizkionei; zuena; zitzaizkionari) |
| 19. Eskerrak eman nizkien lagundu ... | (zidaten; zutena; zidatenak; zidatenei) |
| 20. Txikitari ikasi ... ez zaigu inoiz ahaztu | (genuena; genituenak; genuen; nuena) |

3. Sustantibatu ondoko esaldietako erlatiboak.

Adibidez: Izugarri gustatu zitzaidan ekarri zenidaten oparia
 Izugarri gustatu zitzaidan ekarri zenidatena

1. Ez al dizkiezu eskerrak eman behar lagundu zizuten lagunei?
2. Legarra jauna alkate aukeratu zuten pertsonak ezkerrekoak ziren.
3. Kalera bota zintuzten gizona tabernaren jabea zen.
4. Ondoan jarri zitzaigun gizonak itxura arraroa zeukan.
5. Ordutik kanpo iritsi ziren ikasleak zigortu egin zituzten.
6. Diru gehien zeukan lagunarekin ibiltzen ginen beti.
7. Gaixorik zegoen semearentzat izaten ziren janaririk goxoenak.
8. Azkena zihoan txirrindulariari faroltxo gorria ipintzen zioten.
9. Urtebete zeramaten soldaduak etxera bidali zituzten.
10. Ikastetxe hartan ibili ginen ikasleok aurrera atera gara.
11. Errealaren laukian X ipini zenuten guztiak zuzen zeundeten.
12. Sartzeko esan zigun andreak ez gintuen ezagutzen.
13. Aspirina asmatu zuen gizonak mesede ederra egin zigun.
14. Besoak zabalik hartu gintuen andreak ez zigun mesede txikia egin.
15. Nahi nuen guztia ematen zidaten beti.

4. Euskaratu:

1. Lo que tú dijiste era cierto.
2. Para el que llegó segundo no hubo premio.
3. Con el dinero que me tocó en la lotería me compré una moto.
4. ¿Cómo se llama el médico que te curó?
5. El chico que salía contigo ahora anda con Marisa.
6. Sucedió lo que tú habías dicho.
7. He oído mil veces el disco que me dejaste.
8. Lo que dijisteis me extrañó mucho.
9. Lo que le dieron sus padres era suficiente.
10. Lo que ví allí no se me olvidará nunca.
11. El que andaba perdido era Mikel.
12. Siempre andabais con el que tenía coche.
13. El que dijo eso dijo una gran verdad.
14. ¿Cuándo me vas a devolver el libro que te dejé el mes pasado?
15. Hacía todo lo que quería.

